

Meri gehiago eta Mercedes gutxiago

Oihane Larretxea
de la Granja

Mercedesek 89 urte ditu eta Bilbon bizi da. Ez du goizeko kafea zeinekin konpartitu eta afalosteko tertuliarik ez dago bere etxean. Hogeita hamar urte dira koltxoia handiegia gelditu zitzaiola. Maindireak hotzak dira. Batzuetan, egun osoan, ez du hitzik egiten eta gaue-tan ahotsa ere ez zaio ateratzen. «Bakardadea beldurgarria da, inoiz imajinatu ezin den zerbait. Hainbeste ordu dira etxean sartuta, bakardadeak irentsi egiten zaituela. Lehen nik bizitza nuen, baina orain ez daukat ezer. Lagunak hiltzen doaz, familia hiltzen doa... Bizirik nago baina hilda sentitzen naiz», dio.

Hego Euskal Herrian 177.000 pertsona inguru bizi dira bakarrik. Bakar-bakarririk. Eta uste dut Mercedesek arrazoi osoa duela. Ezin dela imajinatu ere egin. Zer esan dezaket neuk bakardadeaz? Deus, gaur-gaurkoz pribilegiatua naiz.

Gure etxebizitza bloke berean gertatzen den egoera horretaz jabetzeko abiatu du BBK-k ekimena Bilbon, Mercedesen eskultura hiperrealista Areatzako banku batean ipiniz. Inpaktuzko kanpainak da eta akaso balioko du benetan kontzientzia hartzeko eta gure esku dagoen apur hori egiteko, eragin dezakegulako.

Geroztik Mercedesen hitzok buruan bueltaka ditut, are eta konpainia exiji-

tzen duten ditxosozko data hauetan. Gabonak. Politak bezain mingarriak.

Baina badugu besteen hutsune hori nola bete. Bretxan duen lore eta landare postuan Merik kontatu dit Gabon gaua azken urteetan konpainia egiten aritu zaion aitonaarekin pasako duela. Alarguna da eta itzaltzen ari da. Ez du inor, eta ez du etxetik mugitu nahi. Meri bera joango da berera afaltzera, senarra, alaba eta ama utzita. «Gabonak zoriontsu igerotzeko modu asko dago, eta nirea hau da», dio. Horrekin bueltaka nabil orain.

Hobe alde batera uzten baditugu eskulturarekin egindako *selfie*-ak eta gure bizilagun horri atea jotzen badiogu. •

Galduko ez bada

Koldo Sagasti

Aste honetan, euskararen egunaren harira, askok gogora ekarri dute Joxean Artzeren lelo esanguratsu hura: “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”. Ezingo nioke koma bat ere kendu Usurbilgo pentsalariaren gogoetari, baina bai gaur egun zenbaitek egiten duten lelo horren irakurketa bihurriari. Egun ez da falta “dakitenek” horretan “dakitenen artean bakarrik” ikusi nahi duenik, dakitenek dakitenekin eta dakitenen ondorengoek dakitenen ondorengoekin.

Horrela justifikatzen dute guraso, us-tez, euskaltzale askok itunpeko eskola

lehenestea publikoaren kaltean. Argudiobide maltzur hori baliatzen dutenek euren kezka azaldu ohi dute eskola publikoak, non guraso erdaldunen seme-alabak kontzentratzen diren, ez ote duen bermatuko euren haurrak euskara garbizko testuinguru batean hezte. Eta horrela, itxuraz behintzat, euskaldunen umeak kontzentratzen diren eskola sistema hobesten dute, bide batez, Euskal Herritik kanpotik etorritakoen kumeek ez ditzaten kutsatu euren barruti mugatuak. Euskara gutxiengo pribilegiatu baten ondarea delakoan, ghettoak sortzen ari dira. Izan ere, gizarte maila apaleneko eta atzerriko jatorrikoen ondorengoak metatzen diren zenbait eskola

ghettoak badira, neurri berean dira ghettoak zortzi belaunaldiko eta egoera ekonomiko erosoko familia zurienek biltzen dituztenak ere.

Gizarte gero eta pluralago batean bizi gara. Eta aniztasun hori aberasgarria da, baita euskararentzat ere. Hizkuntza galduko ez bada, dakitenek hitz egin beharko dute, noski; baina, hizkuntza dakitenen monopolioa bihurtu gabe, ez dakitenak eta euren ondorengoak ere euskararen altzora erakartzen asmatu beharko dute. Horixe da Hezkuntza Erakundearen politika baztertzailen gainetik Euskal Eskola Publikoa betetzen ari den hutsunea. Bertan dago euskararen biziraupenaren etorkizuna. •